



**FLOREAGA**  
Salestar Ikastetxea  
Azkoitia

2020/2021  
KONTINGENTZIA PLANA

## AURKIBIDEA

### 0. Sarrera

1. Ikastetxeko laguntza eta jarraipen-batzordea.

2. Erakunde Sanitario Integratua (ESI).

3. Agertokiak:

3.1. 1. agertokia.

a) Neurri orokorrak.

b) Kasuen kudeaketa:

- Ikastetxean sintomatologia agertuz gero.
- Kasuak baieztatuz gero.
- Agerpen egoeretarako jarraibideak.

c) Haur Eskola.

- Prebentzio-neurri orokorrak:

Familiak.  
Haurrak.  
Langileak.

- Sarrera-irteerak.
- Garbiketa.
- Komunak.

d) Haur Hezkuntza.

- Prebentzio-neurri orokorrak:

Familiak.  
Haurrak.  
Langileak.

- Sarrera-irteerak.
- Garbiketa.
- Komunak.
- Jolas-ordua.

## e) Lehen Hezkuntza.

- Prebentzio-neurri orokorrak:

Familiak.  
Ikasleak.  
Langileak.

- Sarrera.
- Irteera.
- Garbiketa.
- Komunak.
- Jolas-ordua.

## f) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

- Prebentzio-neurri orokorrak:

Familiak.  
Ikasleak.  
Langileak.

- Sarrera-irteerak.
- Garbiketa.
- Komunak.
- Jolas-ordua.

## g) Informatika gela eta ordenagailu portatilak.

## h) Jangela.

## i) Goizeko zaintza zerbitzua.

## j) Eskolaz kanpoko jarduerak.

## 3.2. 2. agertokia.

## 3.3. 3. agertokia.

## 3.4. 4. agertokia: ikasturte hasieran bizi dugun egoera.

## 4. Familientzako dekalogoia.

## 0. SARRERA

Kontingentzia plan honen helburua, antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibide orokorrak ezartzea da, hasierako edozein eszenatokiri eta gertaeren bilakaeraren mende egon litezkeen balizko eszenatoki-aldaketei behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.

## 1. IKASTETXEKO LAGUNTZA ETA JARRAIPEN-BATZORDEA

Salbuespenezko ikasturte-hasiera honetan, jardueraren garapenerako laguntza-eta jarraipen-batzordea ezarri da ikastetxean, eta honako hauek eratzen dute:

- **Ikastetxeko zuzendaria:** Koldo Gurrutxaga.
- **Ikastetxeko laneko arriskuak prebenitzeko arduraduna eta Covid-19rekin lotutako alderdien erreferentziazko arduraduna:** Oskar Aranbarri.
- **Ikastetxeko Guraso Elkartearen ordezkaria:** Aloña Cabanillas.
- **Berritzeguneko erreferentziazko pertsona:** Edurne Iribar.
- **Ikastetxeko ikuskatzailea:** Demetrio Mazuela.

## 2. ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA (ESI)

Floreaga Salestar Ikastetxearen erreferentziazko ESI-a **Goierrri-Urola Garaia** izango da, eta Osasun Publikoak koordinatutako harremana izango du harekin.

## 3. AGERTOKIAK

2020-2021 ikasturtean, eta osasun-egoeraren arabera, hezkuntza-jarduera ondoko lau jokalekuetan gara daiteke:

### 3.1. 1. AGERTOKIA

Aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera.

#### a) Neurri orokorrak

Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle eta gainerako langileek ez dute ikastetxera joan behar.

Sintomak honako hauek dira:

- Temperatura 37° baino altuago.
  - Eztula.
  - Buruko mina.
  - Ondoeza.
  - Hotzikarak.
  - Gonbitoak.
  - Beherakoa.
  - Gustu eta usaimen falta.
  - Arnasa hartzeko zailtasunak.
- 
- Ikastetxeko LH eta DBHko ikasle, irakasle eta gainerako langileek maskara erabili beharko dute ikastetxeko instalazio guztietan.
  - Garbiketa eta desinfekzio neurriak areagotuko dira eskola-esparru osoan (espazioak, tresnak eta materialak).
  - Gela bakoitzeko sarreran alfonbra bat egongo da, desinfektatzailea botako da eta bertara sartu behar duten guztiek aurretik zapatak bertan astinduko dituzte.
  - Ikasleen sendiko norbaitek ikastetxeko instalazioetara sartu beharra izango balu maskara derrigorrez jantzita eraman beharko du.
  - Eskuak sarri garbitu behar dira eta, bereziki:
    - Gelara sartu aurretik.
    - Eztul egin ondoren.
    - Doministiku egin ondoren.
    - Zintz egin ondoren eta sudurra edo ahoa ukitu ondoren.
    - Jatordu bakoitzaren aurretik eta ondoren.
    - Atarira ateratzerakoan eta ataritik sartzekoan.
    - Komunera joan ondoren.
    - Zikinak daudenean.
  - Norbaitek bere gel hidroalkoholikoa ekarri nahiko balu, aukera izango du.

- Arnasa-higienea.



- Ez dira ikastetxera joango Covid-19 diagnostikoagatik isolatuta dauden ikasle edo irakasleak edo etxean berrogeialdian daudenak, sintomak dituen pertsonaren batekin edo Covid-19 diagnostikatuta duenen batekin kontaktu estua izan dutelako.

## b) Kasuen kudeaketa

- **Ikastetxean sintomatología agertuz gero**

Ikastetxean Covid-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurrez aurreikusitako jarduketa-protokolo bat jarraituko dute:

- Horretarako prestatutako isolamendu-gela batera joango dira (maskara jarrita). Gela honek, idazkaritza ondoan dagoen gela, higiene eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. Ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko arlo medikoari jakinaraziko dio.
- Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta maskara.
- Ikastetxeko zuzendaritza edo ikastetxean Covid-19ren prebentzioaren ardura duen pertsona familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
- Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, isolamenduan jarriko da (maskara jantzita) eta etxera joango da ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi ondoren; zuzendaritzak Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko arlo medikoari jakinaraziko dio.
- Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailekoari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.
- Eragindako pertsona **kasu susmagarritzat** joko da, eta **etxean**

**isolatuta egon** beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren Covid-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan adierazitakoaren arabera.

- h) **Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higiene-neurriak zorrotzuz.** Kasua berresten bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera **identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena** eginez.

- **Kasuak baieztatuz gero**

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da.

Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa ikastetxearekin koordinatuko da, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta Covid-19rekin lotutako alderdien erreferentziazko arduradunarekin. Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, ikastetxeko Zuzendaritza erreferentziako ESI-ko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da.

Kasua baieztatzen bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, **kontaktuak identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena eginez**, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.

Zentroan lan egiten duten langileen esposizioaren balorazioa kasu bakoitzaren arriskuaren ebaluazio espezifikoaren arabera egingo da, SARS-CoV-2-ekiko esposizioaren aurrean Laneko Arriskuen Prebentzio-zerbitzuetarako Jarduketa-prozeduran jasotakoaren arabera; beraz, arrisku-kontaktutzat hartzeak prebentzio- neurrien jarraipen zuzena eta babes-elementuen erabilera baloratuko ditu (distantzia fisikoaren mantentzea eta maskara erabiltzea).

Osasun Publikoko Zerbitzuak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin batera, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko langileak kasu baieztatuen kontaktu estutzat hartu behar diren, hartutako prebentzio-neurrien eta egindako jardueren egokitasunean eta jarraipenean oinarrituta.

Osasun-agintariek jarraipen **aktiboa** egingo dute estutzat identifikatutako kontaktuen artean, eta etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Sailaren Covid-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan zehazten denaren arabera. PCR probak egitea barne hartuko da, Osasun Publikoko agintariek ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.

Gurasoei informazio-oharrak prestatuko zaizkie, eta familiei **informazio** egokia emango zaie **berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas higieneko** neurriak betetzeko, bai eta Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak garaiz identifikatzeko seinaleak ere.

Kontaktuak aztertu eta estutzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko dute, arreta-neurriak zorrotz eta zaintza pasiboa eginez.

Beste kasuren bat balego beste gela batean, ikastetxean, Osasun Publikoko jarraibideak bete. Kasuak erlazionatuta egon daitezke, edo ez, eta detektatutako kasuen kontaktu estuen azterketaren arabera zehaztuko dira neurriak.

Eskola-aldian, Covid-19 kasuak detektatuko dira ikastetxe batera joaten diren haurren artean. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, kutsatzea ikastetxean gertatu denik. Horretarako, eskolaz kanpoko ingurunea sartuko da analisisian, ikastetxeko kontaktu estuak ikertzeko beharraz gain.

- **Agerpen egoeretarako jarraibideak**

- **Brotea ikasgela batean:** 3 kasu edo gehiago talde egonkor bakar batean, haien arteko lotura epidemiologikoarekin. Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek adierazitako kontrol-jardura espezifikoek jarraituko zaie. Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraitzen du prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotz hezkuntza-etapa guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa), eragindako taldean izan ezik.

- **Agerraldi bat hainbat gelatan lotura epidemiologikorik gabe:** 3 kasu edo gehiago talde egonkorretan edo talde egonkor gisa antolatu gabeko klaseetan, kasuen arteko lotura epidemiologikorik gabe. Osasun Sailak/Osakidetzak talde bakoitzerako adierazten dituen kontrol-jardura espezifikoek jarraituko zaie. Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraitzen du prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotz hezkuntza-etapa guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa), eragindako taldeetan izan ezik.

- **Agerraldiak lotura epidemiologikoa duten hainbat gelatan:** kasuak talde egonkor batean baino gehiagotan detektatzea, edo talde egonkor gisa antolatu gabeko klaseetan, talde desberdinen artean nolabaiteko transmisio-maila dutenetan, birusa ikastetxean nola sartzen den kontuan hartu gabe. Osasun Sailak/Osakidetzak adierazitako kontrol-jardura espezifikoek jarraituko zaie. Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraitzen du hezkuntza-etapetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa) prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotz, eragindako taldeetan izan ezik.



- **Agerraldiak kontrolatu gabeko transmisio baten testuinguruan:** lurralde jakin bateko adin-segmenturako espero baino kopuru handiagoarekin ikastetxean kontrolatu gabeko transmisioa gertatzen dela uste bada, Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek neurrien arriskuaren eta beharrezko eskalatzearen ebaluazioa egingo dute.

**c) HAUR ESKOLA (0-2 urte)**

• **Prebentzio-neurri orokorrak:**

**Familiak**

- a) Familiak konpromiso batzuk hartu beharko dituzte eta dokumentu bat sinatu beharko dute.
- b) Haurrak etxetik egunero tenperatura hartuta etorriko dira.
- c) Etxekoak beti maskara jantzita etorriko dira eta gelara sartu behar baldin badute oinetakoak kendu beharko dituzte.
- d) Etxekoak ate beretik sartu eta irtengo dira, baina betiere segurtasun tartea zainduz.

**Haurrak**

- a) Neurri orokorretan aipatutako kasu guztietan garbituko zaizkie eskuak ura eta xaboiarekin.
- b) Ahal den neurrian, haurrek jostailuak partekatzea saihestuko da.
- c) Etxetik ez da jostailurik ekarri behar.
- d) Haur bakoitzak bere manta eta hamaka izango ditu.
- e) Haur bakoitzak bere ur-botila edo kantineplora ekarriko du.

**Langileak**

- a) Maskara uneoro jantzita egongo dira.
- b) Hezitzaileek, lanerako jantzi beharreko arropak, ikastetxean jantziko dituzte.
- c) Mantala egunero garbituko da.
- d) Eskuak maiz garbituko dituzte ura eta xaboiarekin, batez ere, hurrei pixoihala aldatu aurretik eta ondoren, eta janaria eman aurretik eta ondoren.

- **Sarrera-irteerak**

- a) Familiakoak ahalik eta denbora gutxien egongo dira patioan.
- b) Ikastetxe barrura 0-3 urteko haurrak ate beretik sartuko dira. Ahal dela, kanpoko atean geratuko dira familiakoak, familiarizazioan izan ezik.

- **Garbiketa**

- a) Erabiltzen diren espazio eta gainazalak egunero garbituko dira.
- b) Haur Eskolako gela ireki aurretik eta itxi ondoren egunero aireztatuko da.
- c) Jostailuak erabiltzen diren bakoitzean garbituko dira.

- **Komunak**

HH 2 urteko haurrek beraientzako bakarrik izango diren komunak erabiliko dituzte.

- **Jolas-ordua**

0-2 urteko haurrak batera aterako dira patiora.

#### d) HAUR HEZKUNTZA

- **Prebentzio-neurri orokorrak:**

##### **Familiak**

- a) Familiek konpromiso batzuk hartu beharko dituzte eta dokumentu bat sinatu beharko dute.
- b) Haurrak etxetik egunero tenperatura hartuta etorriko dira.
- c) Familiakoak beti maskara jantzita etorriko dira.
- d) Ahal den neurrian, umeak bakarrik sartuko dira gelara. Etxekoak ahalik eta denbora gutxien egongo dira patioan. Gela barrura sartu beharra izanez gero oinetakoak kendu eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea derrigorrezkoa izango da.
- e) Familiakoak bere seme-alabak erabiltzen duten ate beretik sartu eta irtengo dira, baina betiere tarteak zainduz.

### Haurrak

- a) Neurri orokorretan aipatutako kasu guztietan garbituko dituzte eskuak ura eta xaboiarekin.
- b) Etxetik ez da jostailurik ekarri behar.
- c) HHko 3 eta 4 urteko haurrak eraikuntza berean egongo dira baina gela bakoitzak bere eremua izango du.
- d) Jatekorik ez dute partekatuko.
- e) Hurrei aterako zaizkien jolaserako materialak (dendako kaxak, egurrak, aroztegiko materiala, frutak, pinaburuak...) ez dira denak batera aterako. Hauek erabili ostean garbitu egingo dira.
- f) Gela bakoitzean erabiltzen diren materialak gela horrek bakarrik erabiliko ditu (margoak, puntzoiak...).
- g) Haur bakoitzak bere ur botila edo kantinplora ekarriko du.

### Langileak

- a) Maskara uneoro jantzita egongo dira.
- b) Mantala egunero garbituko da.
- c) Eskuak maiz garbituko dituzte ura eta xaboiarekin batez ere, hurrei pixoihala aldatu ondoren, janaria eman aurretik eta ondoren.

#### • Sarrera-irteerak

- a) Gelako ateak, 09:00ak eta 15:00ak baino 10 minutu lehenago irekiko dira. Haurrak ikastetxera iritsi ahala geletara sartzen hasiko dira, betiere zapatak kenduta. Haurrak sartzen direnean, eskuak ura eta xaboiarekin garbituko dituzte.
- b) Gurasoak ahalik eta denbora gutxien egongo dira patioan.
- c) Gelara 3 urtekoak, 3 urtekoen atetik sartuko dira eta 4 urtekoak, 4 urtekoen atetik. Ezinbestekoa izan ezean, familiakoak ez dira gelara sartuko. Gela barrura sartu beharra izanez gero oinetakoak kendu eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea derrigorrezkoa izango da.
- d) HH5 urtekoei ere atea 10 minutu lehenago irekiko zaie eta hauek etorri ahala sartzen joango dira. Sarreran oinetakoak kendu eta eskuak garbituko dituzte.
- e) Goizean irteteko orduan, HH3 urteko ikasleak 12:20an aterako dira.
- f) Arratsaldean irteteko orduan, HH3 urteko ikasleak 16:50ean aterako dira.

#### • Garbiketa

- a) Egunero erabiltzen diren espazio eta gainazalak garbituko dira.
- b) Haur Hezkuntzako eraikina ireki aurretik, itxi ondoren eta jolas-orduan aireztatuko da. Hala ere, ahal den denbora gehienez leihoak irekita egongo dira.

- **Komunak**

- a) HH3 eta 4 urtekoek HHko eraikinean dauden komunak erabiliko dituzte. HH3 urtekoek gelako eszenatokiaren atzean daudenak erabiliko dituzte. HH4 urtekoek aretoaren aurrekoak erabiliko dituzte.
- b) HH 5 urteko haurrek patio berdeko komunak erabiliko dituzte. Bertako komunetako bat beraientzat bakarrik izango da. Komuna izendatuta egongo da.

- **Jolas-ordua**

**Goizez****Eguraldi onarekin:**

- a) 3-4 urtekoak 10:30-11:00
- b) 5 urtekoak 11:00-11:30
- c) 2 urtekoak 11:30-12:15

**Eguraldi txarrarekin:**

- a) 3-4 urtekoak 10:15-10:35 (patio berdea).
- b) 5 urtekoak 10:40-11:00 (patio berdea).
- c) 2 urtekoak ez dira aterako.

**Arratsaldez****Eguraldi onarekin:**

- a) 3-4 urtekoak 15:45- 16:05
- b) 5 urtekoak 16:10 -16:30

**Eguraldi txarrarekin:**

- a) 3-4 urtekoak 15:45- 16:05 (patio berdea).
- b) 5 urtekoak 16:10 -16:30 (patio berdea).

**e) LEHEN HEZKUNTZA****• Prebentzio-neurri orokorrak:****Familiak**

- a) Familiak konpromiso batzuk hartu beharko dituzte eta dokumentu bat sinatu beharko dute.
- b) Ikasleak etxetik egunero tenperatura hartuta etorriko dira.
- c) Ahal dela familiak ez dira ikastetxera sartuko eta sartu beharra badute, maskararekin sartuko dira eta gelara sartu behar baldin badute gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte.
- d) Familiak bere seme-alabak sartzen diren ate beretik sartuko dira, baina beti ere tartekak zainduz.

**Ikasleak**

- a) Etxetik ezingo da jostailurik ekarri.
- b) Jatekorik ez dute partekatuko.
- c) Ikasleak erabiltzen dituzten materialak (boligrafoak, margoak...) bakoitzak bereak izango ditu eta ezingo dira partekatu.
- d) Ikasle bakoitzak bere ur-botila edo kantinplora ekarriko du.
- e) Badaezpada etxetik maskara bat ekarriko dute (gelan gordeko da).
- f) Pertxak kenduko dira eta aulkietan jarriko dituzte jakak.
- g) Goiko patioa 08:50ean eta 14:50ean irekiko da eta 09:05ean eta 15:05ean itxiko da.
- h) Ikastetxean ezingo dira dutxak erabili.

**Langileak**

- a) Maskarak uneoro jantzita egongo dira.
- b) Eskuak maiz garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin.

**• Sarrera**

- a) LH1eko ikasleak beraien gelaren alboan dagoen atetik sartuko dira. Ate hau ordua baino 10 minutu lehenago egongo da irekita eta etorri ahala sartzen hasiko dira.
- b) LH2ko ikasleak beraien gelaren alboan dagoen atetik sartuko dira. Ate hau ordua baino 10 minutu lehenago egongo da irekita eta etorri ahala sartzen hasiko dira.

- c) LH3ko eta 4ko ikasleak patio berdeko LHko atletik sartuko dira. Ate hau ordua baino 10 minutu lehenago irekita egongo da eta iritsi ahal sartzen hasiko dira.
- d) LH5eko ikasleak Alai Batzako atletik sartuko dira. Ate hau ordua baino 10 minutu lehenago irekita egongo da eta iritsi ahala sartzen hasiko dira.
- e) LH6ko ikasleak goiko patioiko DBH aldeko atletik sartuko dira. Ate hau ordua baino 10 minutu lehenago irekita egongo da eta iritsi ahala sartzen hasiko dira.
- f) Ahal den neurrian, gurasoak ez dira patio berdera sartuko eta ikastetxetik kanpo geratuko dira.

- **Irteera**

- a) LH1eko ikasleak sartu diren atletik aterako dira. Modu ordenatu batean, banaka, irakaslea lehen aterako da eta ondoren ikasleak. Taldeko kide guztiak atera arte beste taldekoak ez dira aterako.
- b) LH2ko ikasleak sartu diren atletik aterako dira. Modu ordenatu batean, banaka, irakaslea lehen aterako da eta ondoren ikasleak. Taldeko kide guztiak atera arte beste taldekoak ez dira aterako.
- c) LH3 eta LH4ko ikasleak patio berdera aterako dira LHko atletik. Modu ordenatu batean aterako dira. Taldeko kide guztiak atera arte beste taldekoak ez dira aterako.
- d) LH5 eta LH6ko ikasleak goiko patiotik aterako dira. Modu ordenatu batean aterako dira. Taldeko kide guztiak atera arte beste taldekoak ez dira aterako.

- **Garbiketa**

- a) Egunero erabiltzen diren espazio eta gainazalak garbituko dira.
- b) Ikasleak ez dira gela garbitzen geratuko.
- c) Gelak ireki aurretik, itxi ondoren eta jolas-orduan aireztatuko dira. Hala ere, ahal den denbora gehienez leihoak irekita egongo dira.

- **Komunak**

LHko aldean dauden komunak LHko ikasleek bakarrik erabiliko dituzte. Lehen solairukoak mutilentzat eta bigarren solairukoak neskentzat.

- **Jolas-ordua**

**Goizez**

a) 3 maila, 10:35etik 11:00tara aterako dira patiora (astero aldatzen joango da).

b) Beste 3 mailak, 11:05etik 11:30etara aterako dira.

**a) Eguraldi onarekin:** 6 gune ezberdinetan banatuko da patioa.

Patiora modu ordenatu batean aterako dira, beti irakasle batekin.

1., 2. eta 3. mailakoak Alai Batzako gelatik aterako dira.

4., 5. eta 6. mailakoak DBHko goiko ateetatik aterako dira.

6. gunera DBHko patio berdeko atetik aterako dira.

- **1. gunea:** Frontoia (frontoiko ate handia beti zabalik egongo da).

- **2. gunea:** Frontoitik lehenengo porteriaraino.

- **3. gunea:** Futboleko zelai erdia, harresitik geletara.

- **4. gunea:** Futbol zelai erdia, harresitik geletara.

- **5. gunea:** Tekla.

- **6. gunea:** Patio berdea.

- Ezingo da futbolean, saskibaloian, pilotan... ibili. Baloirik ere ezingo da atera.
- Guneen banaketa egunero aldatu egingo da.
- Jolas ordutik sartzeko gelaka bildu eta irakaslearekin modu ordenatu batean igoko dira.
- Gune bakoitzean irakasle bat egongo da.

**b) Eguraldi txarrarekin:****10:35 - 11:05**

Bi gela frontoira aterako dira. Beste lau gela, gelan geratuko dira. (egunero aldatzen joango da) Gelan geratzen direnak kanpora aterako dira hamarretako jaterra.

**11:05 - 11:30**

Beste 3 mailak:

- Frontoira bi gela joango dira (egunero aldatzen joango da).
- Beste bi gela gelan geratuko dira (egunero aldatzen joango da). Gelan geratzen direnak kanpora aterako dira hamarretakoa jaterra.
- Patio berdera, beste bi gela joango dira (egunero aldatzen joango da).

**Arratsaldez****• Eguraldi onarekin:**

-LH1 goiko patiora.

**• Eguraldi txarrarekin:**

-LH1 gelan.

**f) DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA****• Prebentzio-neurri orokorrak:****Familiak**

- a) Familiek konpromiso batzuk hartu beharko dituzte eta dokumentu bat sinatu beharko dute.
- b) Ikasleak etxetik egunero tenperatura hartuta etorriko dira.



- c) Ahal dela familiak ez dira ikastetxera sartuko eta sartu beharra badute, maskararekin sartuko dira eta gelara sartu behar baldin badute gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte.
- d) Familiak bere seme-alabak sartzan diren ate beretik sartuko dira, baina beti ere tarteak zainduz.

### **Ikasleak**

- a) Jatekorik ez dute partekatuko.
- b) Jolaserako materialik ezingo dute ekarri etxetik.
- c) Ikasleak erabiltzen dituzten materialak (boligrafoak, margoak...). bakoitzak bereak izango ditu eta ezingo dira partekatu.
- d) Ikasle bakoitzak bere ur botila edo kantinplora ekarriko du.
- e) Badaezpada etxetik maskara bat ekarriko dute (gelan gordeko da).
- f) Pertxak kenduko dira eta aulkietan jarriko dituzte jakak.
- g) Goiko patioa eta Floreagako dorreetako ateak 07:50ean ireki eta 08:05ean itxiko dira.

### **Langileak**

- a) Maskara uneoro jantzita egongo dira.
- b) Eskuak maiz garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin.

#### **• Sarrera-irteerak**

- a) DBH 1B eta 2Bko ikasleak dorreetako etxe aurrean dauden ateetatik sartuko dira. Ate hauek ordua baino 10 minutu lehenago egongo dira irekita eta etorri ahala sartzan hasiko dira.
- b) DBH 1A eta 2Ako ikasleak goiko patioan dauden bi ateetatik sartuko dira. Ate hauek ordua baino 10 minutu lehenago egongo dira irekita eta etorri ahala sartzan hasiko dira.
- c) DBH 3A eta 4Akoak patio berdeko DBHko atetik sartuko dira. Ate hau ordua baino 10 minutu lehenago irekita egongo da eta etorri ahala sartzan hasiko dira.
- d) DBH 3B eta 4Bkoak patio berdeko LHko atetik sartuko dira. Ate hau ordua baino 10 minutu lehenago irekita egongo da eta etorri ahala sartzan hasiko dira.
- e) Eskolatik irteera modu ordenatuan egingo da.

#### **• Garbiketa**

- a) Egunero erabiltzen diren espazio eta gainazalak garbituko dira.
- b) Ikasleak ez dira gela garbitzen geratuko.

c) Gelak ireki aurretik, itxi ondoren eta jolas-orduan aireztatuko dira. Hala ere, ahal den denbora gehienez leihoak irekita egongo dira.

- **Komunak**

a) Komunitatean xaboa egongo da.

b) DBHko komunak DBHko ikasleek bakarrik erabiliko dituzte:

1. solairukoak mutilek eta 2. solairukoak neskek.

- **Jolas-ordua**

a) B-ko guztiak LHko patio berdeko atletik aterako dira.

b) A-ko guztiak DBHko patio berdeko atletik aterako dira.

c) Patio berdetik gora Bkoak nesken komun ondoko eskaileratik igoko dira eta Akoak mutilen komunen ondoko eskaileretatik igoko dira.

d) Jolas orduan 8 gune ezberdinetan banatuko da patioa:

- **1. gunea:** Frontoia (ate handia beti zabalik egongo da).
- **2. gunea:** Frontoitik futbol zelairaino.
- **3. gunea:** Futbol zelai handiaren erdia.
- **4. gunea:** Futbol zelai handiaren erdia.
- **5. gunea:** Futbol zelai txikiaren erdia.
- **6. gunea:** Futbol zelai txikiaren erdia.
- **7. gunea:** Patio berdea.
- **8. gunea:** Idazkaritza aurea.

e) Gune bakoitzean irakasle bat egongo da.

f) Ezingo da futbolekin, saskibaloian, pilotan... ibili. Balonrik ere ezingo da atera.

g) Guneen banaketa asteka aldatu egingo da.

h) Jolas ordutik sartzeko gelaka bildu eta irakaslearekin modu ordenatu batean igoko dira:

- **1. gunea:** Patio berdeko LHko atletik.
- **2. gunea:** Patio berdeko LHko atletik.
- **3. gunea:** Patio berdeko LHko atletik.
- **4. gunea:** 1. solairuko atletik.
- **5. gunea:** 1. solairuko atletik.
- **6. gunea:** 1. solairuko atletik.
- **7. gunea:** Patio berdeko DBHko atletik.
- **8. gunea:** Patio berdeko DBHko atletik.

**g) INFORMATIKA GELA ETA ORDENAGALU PORTATILAK**

- a) Ordenagailuak erabali aurretik eskuak garbitu behar dira.
- b) Ordenagailuak erabili ondoren ordenagailu bakoitza desinfektatuko da
- c) Bukatutakoan, berriro eskuak garbitu behar dira.

**h) JANGELA****• Sarrera-irteerak**

- a) Sarrerak eta irteerak ate ezberdinetatik egingo dira maskara jantzita.
- b) Jangelara sartu aurretik, eskuak garbitu behar dira.
- c) HHkoak, 12:30ak baino lehenago geletatik atera eta zuzenean jangelara joango dira, bakoitza bere gelakoekin.
- d) LH1 eta LH 2koak beraien geletatik zuzenean jangelara jaitsiko dira jangelako langileekin.
- e) 12:30ean, Alai Batzako gelan LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleak bilduko dira.

**• Antolaketa**

- a) Mahai bakoitzean, soilik, gelakideak eseriko dira.
- b) Jangelan, gehienez, 35 pertsonak bazkalduko dute batera.
- c) Lehentasuna egunero gelditzen diren ikasleei emango zaie.
- d) 13:15ean falta diren LHko ikasleek bazkalduko dute.
- e) Bazkaltzeko hirugarren txanda beharko balitz, 14:00etan DBHkoekin batera egingo litzateke.
- f) Bazkal ondoren, adinaren arabera, HH geletara, goiko patiora edo patio berdean egongo dira maskara jantzita.

**• Garbiketa**

- a) Erabiltzen dituzten jostailuak egunero garbituko dira.
- b) Zerbitzua amaitzean, erabili diren ontzi eta tresna guztiak egunero ontzi-garbigailuan garbituko dira.
- c) Egunero mahaiak, lurra eta atea desinfektatuko dira.
- d) Langileek lanean hasi baino lehen eskuak garbituko dituzte eta maskarekin egingo dute lan.
- e) Bazkaltzeko txanda bakoitza bukatzen denean mahaiak desinfektatu egingo dira.
- f) Ez da posible izango hortzak garbitzea.

- **Komunak**

Komunak itxita egongo dira, behar direnean irekiko dira soilik.

- **Familiak**

- a) Familikoek patio berde kanpoan jaso beharko dituzte umeak.
- b) Jangela zerbitzua erabiltzen duten ikasleek ezin izango dute ikastetxetik irten eskolaz kanpoko jarduerak egiteko.
- c) Ikasleren batek Covid-19arekin bat datorren sintomaren bat izango balu familiari deituko zaio.

### **i) GOIZEKO ZAINZA ZERBITZUA**

- a) Sartu aurretik eskuak garbitu behar dira.
- b) Sarrerak eta irteerak ate ezberdinetatik egingo dira maskara jantzita.
- c) Adin ezberdinetako ikasleak egongo direnez, gelazka antolatuko dira.
- d) Maskara jantzita egon behar dute.
- e) Amaitutakoan, ibilitako mahaiak desinfektatu egingo dira.
- f) Norbaitek Covid-19arekin bat datorren sintomaren bat izango balu familiari deituko zaio.

### **j) ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK**

Egungo egoera epidemiologikoa kontuan hartuta (**2020ko urriaren 2a**), Haur Hezkuntzaren kasuan izan ezik, eskolaz kanpoko jarduerak egin ahal izango dira, betiere ezarritako protokoloak eta Kontingentzia Plana betetzen badira, bai ikastetxearenak bai erakunde antolatzailearenak, eta prebentzio-neurriak errespetatzen badira (urruntzea, higiena eta maskararen erabilera).

## **3.2. 2. AGERTOKIA**

Aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoak txandakatu eta aldi berean egitea ahalbidetzen dituena.

Egoera honetan gela erdiak klaseak modu presentzialean jarraituko ditu eta beste erdiak online. Lehenengo astean, ikasle batzuk online arituko dira eta besteak modu presentzialean. Bigarren astean alderantziz, eta horrela txandakatuz joango dira.

Agertoki honetan, ikasle kalteberenen eta/edo zailtasun gehien dituztenen presentzialtasuna lehenetsiko da.

Etiket lanean ari diren ikasleak klase hasieran konektatuko dira eta irakaslearen azalpenak jarraituko dituzte.

Ikastetxera etortzen direnean aurretik adierazitako protokoloa (1. agertokioa) jarraitu beharko dute.

Agertoki honetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen irakaskuntza presentziala lehenetsiko da.

### 3.3. 3. AGERTOKIA

Konfinamendua eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera aurreikusten dituena.

#### • HAUR HEZKUNTZA

- a) Ikasturtea hasi aurretik etxean dituzten baliabideei buruzko informazioa jasoko dugu.
- b) SITES plataforma erabiliko da ariketak bidaltzeko orduan, astero eguneratuko da.
- c) Gurasoen helbide elektronikoak erabiliko dira beraiekin komunikatzeko.
- d) Behar den guztietan eta, gutxienez, asteen behin, tutoreak familia bakoitzarekin hitz egingo du.
- e) Familiek beharrezkoa ikusten dutenean, tutorearekin harremanetan jar daitezke.
- f) Asteen hiru aldiz, tutorea hurrekin komunikatuko da (bideo-deiak: banaka edo taldean).
- g) Debekatuta dago egiten diren bideodeiak grabatzea eta partekatzea.
- h) Debekatuta dago irakasleek argitaratzen dituzten bideoak partekatzea.

#### • LEHEN HEZKUNTZA

##### 1. zikloa

- a) Ikasturtea hasi aurretik etxean dituzten baliabideei buruzko informazioa jasoko dugu.
- b) Ikasturte hasieran, ikasleak lanerako erabiliko diren plataforma eta aplikazioen inguruan trebatuko dira.
- c) Ikasleen jarraipenerako taula bat erabiliko da.
- d) Astero eguneratuko den SITES plataforma erabiliko da ariketak bidaltzeko.
- e) Ikasleekin komunikatzeko sortu berri diren helbide elektronikoak erabiliko dira.

- f) Behar den guztietan eta, gutxienez, astean behin tutorea familiekin komunikatuko da.
- g) Familiek beharrezkoa ikusten dutenean, tutorearekin harremanetan jar daitezke.
- h) Astean behin, tutorea hurrekin komunikatuko da (bideo-deiak: banaka, taldeka).
- i) Beharrezkoa bada, gai berri baten hasieran azalpen bideoak bidaliko zaizkie.
  
- j) Debekatuta dago egiten diren bideodeiak grabatzea eta partekatzea.
- k) Debekatuta dago irakasleek argitaratzen dituzten bideoak partekatzea.

## 2. zikloa

- a) Ikasturtea hasi aurretik etxean dituzten baliabideei buruzko informazioa jasoko dugu.
- b) Ikasturte hasieran, ikasleak lanerako erabiliko diren plataforma eta aplikazioen inguruan trebatuko dira.
- c) Ikasleen jarraipenerako taula bat erabiliko da.
- d) Classroom plataforma erabiliko da ikasleei ariketak bidaltzeko.
- e) 3. mailako ikasleekin komunikatzeko sortu berri diren helbide elektronikoak erabiliko dira.
- f) Behar den guztietan eta, gutxienez, astean behin tutorea familiekin komunikatuko da.
- g) Familiek beharrezkoa ikusten dutenean, tutorearekin harremanetan jar daitezke.
- h) Astean behin, tutorea ikasleekin komunikatuko da (bideo-deiak: banaka, taldeka).
- i) Beharrezkoa bada, gai berri baten hasieran azalpen bideoak bidaliko zaizkie.
- j) Baliabideak izan eta konektatzen ez denari Educamos-en jakinarazpena jarriko zaio.
- k) Educamos-en astean zehar egin dituzten lanen berri emango zaie.
- l) Astean zehar egin beharreko lanak azaltzeko taula bat partekatu da ikasleekin.
- m) Debekatuta dago egiten diren bideodeiak grabatzea eta partekatzea.
- n) Debekatuta dago irakasleek argitaratzen dituzten bideoak partekatzea.

## 3. zikloa

- a) Ikasturtea hasi aurretik etxean dituzten baliabideei buruzko informazioa jasoko dugu.
- b) Ikasturte hasieran, ikasleak lanerako erabiliko diren plataforma eta aplikazioen inguruan trebatuko dira.

- c) Ikasleen jarraipenerako taula bat erabiliko da.
- d) Classroom plataforma erabiliko da ikasleei ariketak bidaltzeko.
- e) Behar den guztietan eta, gutxienez, astean behin tutorea familiekin komunikatuko da.
- f) Familiek beharrezkoa ikusten dutenean, tutorearekin harremanetan jar daitezke.
- g) Astean behin, tutorea hurrekin komunikatuko da (bideo-deiak: banaka, taldeka).
- h) Beharrezkoa bada, gai berri baten hasieran azalpen bideoak bidaliko zaizkie.
- i) Baliabideak izan eta konektatzen ez badira Educamos-en jakinarazpena jarriko da. Askotan errepikatzen bada gurasoei telefonoz deituko zaie.
- j) Educamos-en astean zehar egin dituzten lanen berri emango zaie.
- k) Astean zehar egin beharreko lanak azaltzeko taula bat partekatu da ikasleekin.
- l) Debekatuta dago egiten diren bideodeiak grabatzea eta partekatzea.
- m) Debekatuta dago irakasleek argitaratzen dituzten bideoak partekatzea.

#### • DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- a) Ikasturtea hasi aurretik etxean dituzten baliabideei buruzko informazioa jasoko dugu.
- b) Irakasle bakoitzak erabakiko du zein baliabide edo plataforma erabili (Classroom, moodle, drive, meet...). Ikasturte hasieran, ikasleak lanerako erabiliko diren plataforma eta aplikazioen inguruan trebatuko dira.
- c) Driven gela bakoitzarentzako karpeta bat sortuko da. Karpeta horren barruan lan antolaketa taula bat eta irakasgai bakoitzeko karpeta bat egongo dira. Lan antolaketa taulan ikasleek astean egin behar duten lana azalduko da. Irakasgaietako karpetetan irakasle bakoitzak lanak egiteko beharrezkoak diren dokumentuak txertatuko ditu.
- d) Baliabideak izan eta konektatzen ez badira Educamos-en jakinarazpena jarriko da. Askotan errepikatzen bada gurasoei telefonoz deituko zaie.
- e) Ikasleak konektatzen direnean kamara piztuta eduki beharko dute.
- f) Educamos: jakinarazpenetan ikasleak egin duena edo ez duena jarriko zaie.
- g) Tutoretzak egiteko bideodeiak erabiliko dira.
- h) Behar den guztietan eta, gutxienez, hamabostean behin tutorea familiekin komunikatuko da.
- i) Familiek beharrezkoa ikusten dutenean, tutorearekin harremanetan jar daitezke.
- j) Debekatuta dago egiten diren bideodeiak grabatzea eta partekatzea.
- k) Debekatuta dago irakasleek argitaratzen dituzten bideoak partekatzea.

### 3.4. 4. AGERTOKIA: IKASTURTE HASIERAN BIZI DUGUN EGOERA

Gela bereko zenbait ikasle aurrez aurreko hezkuntza-jardueran ari diren bitartean, beste zenbait ikasle etxean konfinaturik daude.

Gaur egun dugun egoera ez dator bat ikasturte hasieran planteatu zizkiguten agertokiekin. Beraz, egoera honek irauten duen bitartean, ondoren aipatzen diren jarraibideak hartu beharko ditugu kontuan. Covid-19 dela eta, Osakidetzaren aginduz konfinatuta dauden ikasleek gainerako ikaskideekin batera klaseak jarraitu beharko dituzte. Irailaren 28tik aurrera, LH3.mailatik aurrera honela funtzionatuko dugu:

- a) DRIVE-ko taulan egin behar den lana jarriko da.
- b) Beharra dagoenean eta egin beharreko lanaren arabera, klaseko azalpenak MEET bidez jarraitu beharko dituzte eta kamara piztuta eduki behar dute.
- c) Egindako lanekin zer egin behar duten irakasle bakoitzak esango die: classroom-en txertatu, korreoz argazkia bidali, drive bidez partekatu...
- d) Gerta daiteke azalpenik ez egotea ariketak egin behar dituztelako. Kasu honetan klase hasieran konektatuko dira eta irakasleak esango die zein den egin behar duten lana. Irakasleak esango die denbora osoan konektatuta jarraitu behar duten ala ez.
- e) Debekatuta dago egiten diren bideodeiak grabatzea eta partekatzea.
- f) Debekatuta dago irakasleek argitaratzen dituzten bideoak partekatzea.



#### 4. FAMILIENTZAKO DEKALOGOIA

- a) Haurrek ezin dute ikastetxera joan sukarra ( $>37^{\circ}\text{C}$ ) badute. Horrek esan nahi du familiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela.
- b) Pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen lagun, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.
- c) Familiak ikastetxean sartu ahal izateko, aldeztu aurretik hitzordua, berariazko baimena edo horretarako deialdia izan beharko dute (egokitzapen-aldirako, bileretarako, prestakuntzarako, etab.).
- d) Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eratu.
- e) Haur guztiek izan beharko dute beren maskara, eskola-egunean erabiltzeko higie-baldintzak bermatuko dituenak.
- f) Familiak lankidetzan arituko dira ikastetxeak oinarrizko higie-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola:
  - Ikastetxeko seinaleak errespetatzea.
  - Maskara erabiltzea.
  - Eskuak garbitzea.
  - Aretoak aireztatzea.
  - Bizikidetzatalde egonkorreko kide izatea.
- g) Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
- h) Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
- i) Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango dio ikastetxeari, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
- j) Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan Covid-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.